UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAK KUDEATUTAKO GARBIGUNEETAN (AIA-ORIOKOA, ZARAUZKOA ETA ZUMAIAKOA) EDO EKARPEN-GUNEETAN ETA/EDO EKARPEN-GUNEEN ERAGIN-ESPARRUETAN JASO DIREN ETA AMIANTOA IZAN DEZAKETEN HONDAKINEN KUDEAKETA-ZERBITZUAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

AURKIBIDEA

1. KONTRATUAREN XEDEA 2
2. EGIN BEHARREKO LANAK 2
3. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA 2
3.1. Garbiguneetan amiantodun hondakinak biltzeko zerbitzua 2
3.2. Urgentziazko esku-hartzeak 4
4. ZERBITZUAREN ANTOLAKETA ETA KONTROL-SISTEMAK 6
4.1. Bilketa-zerbitzuaren antolaketa 6
4.2. Kontrol-txostenak 7
5. LANGILEAK 7
6. BALIABIDE MATERIALAK 8
7. MEMORIA TEKNIKOA 8
7.1. Garbigunean hondakina bildu eta garraiatzeko zerbitzua 8
7.2. Urgentziazko esku-hartzeetan hondakina bildu eta garraiatzeko zerbitzua 9
1. ERANSKINA: LAN-PLANAREN GUTXIENEKO EDUKIA 11

1. KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honen xedea da zenbait baldintza tekniko finkatzea, oinarri gisa erabil daitezen Urola Kostako Udal elkarteak kudeatutako garbiguneetan (Aia-Oriokoan, Zarauzkoan eta Zumaiakoan) edo ekarpen-guneetan eta/edo ekarpen-guneen eragin-esparruetan jaso diren eta amiantoa izan dezaketen hondakinen bilketa, prestaketa eta kudeaketa zerbitzua kontratatzean.

2. EGIN BEHARREKO LANAK

Agiri honen arabera egiten den kontratuaren xedea zerbitzu hauek ematea da:

- Erabiltzaileek Udal Elkartearen jabetzako garbiguneetara eramaten dituzten eta amianto ez hauskorra izan dezaketen materialak biltzea, prestatzea, garraiatzea eta azken tratamendua ematea.
- Udal Elkarteak Urola Kostako bide publikoetan ezarritako edukiontzien inguruan eta Udal Elkartearen jabetzako garbiguneetako edukiontzietan aurkitu diren eta amianto ez hauskorra izan dezaketen materialak biltzea, prestatzea, garraiatzea eta azken tratamendua ematea.

Enpresa lizitatzaileek, beren kalkuluak egiteko, honako magnitude-ordena hau har dezakete erreferentzia modura:

	Jasotako material kopurua (kg)				
	2021	**2022**	**2023**	**2024**	**2025**
Bilketa zerbitzua eta Urgentziazko eskuhartzeak	**2.700**	**1.860**	**1.380**	**3.530**	**1.210**

Bildutako material mota, gehienbat, loreontziak, zorrotenak eta zuntz-zementuzko plakak izan dira.

Udal Elkarteak beste langune bat gehitu dezake, eta, horretarako, enpresa esleipendunak horri dagokion lan-plan bat egin beharko du, agiri honen **1. eranskinean** ezarritako gutxieneko edukia oinarri hartuta.

3. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

3.1. Garbiguneetan amiantodun hondakinak biltzeko zerbitzua

Erabiltzaileek Udal Elkartearen jabetzako garbiguneetara (Aia-Orio, Zarautz eta Zumaia). eramaten dituzten eta amianto ez hauskorra izan dezaketen materialak bildu, prestatu, garraiatu eta horien azken kudeaketa egingo da.

Horretarako, zehaztapen hauek bete behar dira:

1. Lan-plan bat egin behar da, organo eskudunak lanak egiten hasi aurretik onar dezan. Planaren zehaztapen minimoak 1. eranskinean azaldu dira xehetasunez. Lan-plana eta haren onarpena, bai eta eguneratzeak ere, udal elkartera bidali beharko dira lanak hasi aurretik.

2. Edozein esku-hartze egiten hasi aurretik, organo eskudunari jakinaraziko zaio. Jakinarazpen hori egiaztatzen duen agiria bidaliko da udal elkartera.

3. Udal Elkartearen esku jarriko dira zerbitzua emateko behar diren instalazioak, lan-planeko zehaztapenak aintzat hartuta. Bertan utzitako materiala manipulatzeko eta egokitzeko beharrezkoak diren makinak, materialak eta ekipo teknikoak ere eduki beharko dituzte instalazioek, bai eta horretaz arduratuko diren langileak ere. Esleipendunaren ardura izango da zerbitzua emateko behar diren makinak eta langileak izatea.

   Materiala prestatzea, instalatzea eta martxan jartzea, bai eta desmuntatzea eta ondoren jasotzea ere, zerbitzuaren nahitaezko eta bereizi ezinezko jardueratzat joko dira. Zerbitzua ezarritako ordutegiaren barruan erabat martxan egoteko moduan egin beharko dira, ohiko garapenari eragin gabe eta kostu gehigarririk sortu gabe.

4. Jasoketa zerbitzuaren gutxieneko ordutegia:

   Ordutegia: 9:00-13:30 / 15:00-17:00
   Kokapena: Aia-Orioko / Zarauzko / Zumaiako garbigunea, txandakatuz
   Egutegia: hileko azken osteguna

   Zerbitzuaren hasiera-ordua erabiltzaileei benetako arreta ematen hasi behar den unea izango da. Horrenbestez, ordu horretarako prestaketa lan guztiak amaituta egon beharko dira, eta langileak, instalazioak, ekipamenduak eta baliabide material guztiak erabat operatibo eta zerbitzua emateko prest egon beharko dira.

   Zerbitzuaren beharrengatik bilketa-ordutegia edo bilketa-eguna aldatu behar bada, enpresa esleipendunak aldaketa horietara egokitu beharko du. Horrek, berez, ez du kontratua aldatzeko eskubiderik ez eta kalte-ordain edo konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik ere sortuko, salbu eta aplikatu beharreko araudiak berariaz kontrakoa xedatzen badu edo, sektore publikoko kontratuei buruzko legeriarekin bat etorriz, kontratua aldatzea bidezkoa bada.

5. Udal Elkarteak eskubidea du zerbitzuaren egoki iruditzen zaizkion ikuskapenak egiteko.

6. Eskatutako material guztia onartu eta tratatu behar du, agintaritza eskudunak onartutako lan-plana oinarri hartuta. Enpresa lizitatzaileek kontuan hartu beharko dute alderdi hori beren eskaintzan zer prezio ezarri kalkulatzerakoan.

7. Jasoketa eragiketa bakoitzaren ondoren, enpresa esleipendunak honako hauek egin beharko ditu:
   - Eremua sakon garbitzea (garbiguneko erremua zein erabiltzailearen ibilgailua), metodo hezeen bidez eta/edo HEPA iragazkia duten xurgagailuen bidez.
   - Material-hondakin ikusgai oro edo hautsa susmagarria kentzea. (garbiguneko erremua zein erabiltzailearen ibilgailua)
   - Sortutako hondakin guztiak amiantoa duten hondakin gisa kudeatzea.

8. Kudeaketa lanari dagokionez, enpresa esleipenduna arduratuko da onarpen, jarraipen eta kontrol agiriak izapidetzeaz, bai eta egoki diren gainerako agiriak ere, ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuak (Espainiako lurraldearen barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duena) eta gai horretan aplikagarri diren gainerako araudiek ezarritakoaren arabera. Horretarako, enpresa esleipendunak Eusko Jaurlaritzak ezartzen duen kudeaketa elektronikoko sistema erabili beharko du (une honetan, IKS-eeM sistema).

   Estatuaren lurraldearen barruan hondakinak lekualdatzea arautzen duen aipatutako Errege Dekretuan ezarritakoa betez, hondakinen kudeaketaren enpresa esleipendunak hondakinen lekualdaketari eta entregari buruzko dokumentazio guztia sortuko du e-SIR hondakinak kudeatzeko estatuko plataforma elektronikoaren bidez. Kudeaketa horren kostua eskainitako prezioan sartuta dagoela ulertuko da.

9. Jasotako materialak zabortegi baimendu batean kudeatuko dira, indarrean dagoen legeriaren arabera. Bilketa eta kudeaketa horren antolaketa (prozedura, dokumentazioa…) memoria teknikoan zehaztuko da, eta behar diren baimenak aurkeztuko dira.

   Enpresa esleipenduna arduratuko da hondakina kudeatzeaz, eta dagokion tratamendu-kontratua (TK) formalizatu beharko du, edo administrazio eskudunak edo hondakinak kudeatzeko plataforma aplikagarriak eskatutako onarpen-dokumentu baliokidea. Hondakina lekualdatzearekin lotutako identifikazio edo segimendu dokumentu guztiak onarpen kontratu edo dokumentu horren eta indarrean dagoen araudiaren arabera izapidetuko dira.

10. Enpresa esleipendunak, hondakina zabortegi baimendu batera eraman aurretik, bitarteko biltegiratze-zentro bat jarri ahal izango du eskuragarri, betiere indarrean dagoen araudiak baimendua. Kasu horretan, zentroaren deskribapena, ezaugarri zehatzak, baimenak,… aurkeztu beharko dira memoria teknikoan. Gainera, bitarteko biltegiratze-zentroa Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinen Ekoizpen eta Kudeaketa Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da.

11. Urte amaieran emandako zerbitzuaren datuen txostena aurkeztuko da, bertan gutxienez egindako zerbitzuen datuak, hondakin motak, kopuruak, kudeatze data, onarpen agirien laburpena bilduko dira.

12. Kontratua gauzatzen den bitartean, zerbitzuari eragiten dioten eta nahitaez bete beharreko, arau, lege, teknika edo baldintza administratibo aldaketak gertatzen direnean, enpresa esleipendunak aldaketa horietara egokitzeko neurriak ezarriko ditu. Horrek ez du, berez, kontratua aldatzeko edo konpentsazio ekonomikorako eskubiderik emango, aplikatzekoa den araudiak berariaz kontrakoa xedatzen badu edo, sektore publikoko kontratuei buruzko legeriaren arabera, kontratua aldatzea bidezkoa den kasuetan izan ezik. Enpresa esleipendunak kontratuaren exekuzioari eragiten dion edozein arau-aldaketa garrantzitsuren berri eman beharko dio kontratazio-organoari, hura betetzen dela bermatzeko beharrezko neurriak proposatu beharko ditu eta Urola Kostako Uda Elkartearen aldez aurreko baimena eman beharko du.

3.2. Urgentziazko esku-hartzeak

Udal Elkarteak bere ekarpen-guneetan eta/edo ekarpen-guneen eragin-esparruetan aurkitu dituen eta amianto ez hauskorra izan dezaketen materialak bildu, egokitu eta garraituko dira, eta horiei azken tratamendua emango zaie.

- Ekarpen-gunea: Urola Kosta eskualdeko lurralde eremuan dauden eta etxeko hondakinak biltzeko Udal Elkartearen edukiontziak dituzten eremu guztiak.

- Ekarpen-gune baten eragin-esparrua: hondakinak biltzeko ekarpen-gunearen eremuan dauden edukiontzi guztiek hartzen duten azalera eta horien inguruko gutxienez 2 metroko erradioko azalera osoa. Halaber, eragin-esparruan daudela iritziko zaie erabiltzaileek edukiontziaren kanpoaldean utzitako hondakinei, hondakinen eremu horretan biltzeko asmoz utzitakoei, nahiz eta gorago aipatutako 2 metroko eremuan ez egon.

Horretarako, zehaztapen hauek bete behar dira:

1. Lan-plan bat egin behar da, organo eskudunak lanak egiten hasi aurretik onar dezan. Urgentziazko esku-hartzetzat hartuko da, eta 1. eranskineko zehaztapenak izango dira kontuan, kokapena, ordutegia, maiztasuna eta instalazioak salbu, horiek urgentziazko zerbitzuaren ezaugarrien arabera egokituko baitira. Lan-plana eta haren onarpena, bai eta eguneratzeak ere, uda elkartera bidali beharko dira lanak hasi aurretik.

2. Edozein esku-hartze egiten hasi aurretik, organo eskudunari jakinaraziko zaio. Jakinarazpen hori egiaztatzen duen agiria bidaliko da udal elkartera.

3. Esleipendunaren ardura izango da zerbitzua emateko behar diren instalazioak, erakunde eskudunak onartutako lan-planeko zehaztapenak aintzat hartuta. Jasotako materiala manipulatzeko eta egokitzeko beharrezkoak diren makinak, materialak eta ekipo teknikoak ere eduki beharko dituzte instalazioek, bai eta horretaz arduratuko diren langileak ere.

4. Urgentziazko zerbitzua denez, eta haren beharra ezin denez aurreikusi, ezta programatu ere, prestazioa berehala eman beharko da, udal elkarteak eskaera egin ondoren.

   Udal elkarteak enpresa esleipendunari jakinaraziko dizkio, posta elektronikoz eta telefonoz, amiantoa izan dezakeen kontrolatu gabeko materialari buruzko kokapena eta beharrezko gainerako datuak.

   Enpresa esleipendunak nahitaezko jakinarazpenak egingo dizkio lan-agintaritzari, eta materiala erretiratuko du jakinarazpenaren egunean bertan. Hala ere, jakinarazpena 14:00etatik aurrera egiten denean, erretiratzea hurrengo egun balioduneko 14:00ak baino lehen egin ahal izango da.

   Jarduketa bukatu ondoren, enpresa esleipendunak udal elkarteari bidali beharko dizkio materialaren argazkiak, erretiratu aurretik, eta kokalekuaren egoera lanak amaitu ondoren.

5. Udal Elkarteak eskubidea du egoki iruditzen zaizkion ikuskapenak egiteko.

6. Eskatutako material guztia onartu eta tratatu behar du, agintaritza eskudunak onartutako lan-plana oinarri hartuta. Enpresa lizitatzaileek kontuan hartu beharko dute alderdi hori beren eskaintzan zer prezio ezarri kalkulatzerakoan.

7. Kudeaketa-lanari dagokionez, enpresa esleipenduna arduratuko da onarpen, jarraipen eta kontrol agiriak izapidetzeaz, bai eta egoki diren gainerako agiriak ere, ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuak (Espainiako Estatuaren lurraldearen barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duenak), eta gai horretan indarrean jar daitezkeen gainerako araudi aplikagarriek ezarritakoaren arabera. Horretarako, enpresa esleipendunak Eusko Jaurlaritzak ezartzen duen kudeaketa elektronikoko sistema erabili beharko du (une honetan, IKS-eeM sistema).

   Aipatutako Errege Dekretuak xedatutakoa betez, hondakinen kudeaketaren esleipendunak hondakinak kudeatzeko e-SIR estatuko plataforma elektronikoaren bidez sortuko du hondakinen lekualdatze eta entregarekin lotutako dokumentazio guztia. Kudeaketa horren kostua eskainitako prezioen barne egongo da.

8. Jasotako materialak zabortegi baimendu batean kudeatuko dira, indarrean dagoen legeriaren arabera. Bilketa eta kudeaketa horren antolaketa (prozedura, dokumentazioa…) memoria teknikoan zehaztuko da, eta behar diren baimenak aurkeztuko dira.

   Enpresa esleipenduna arduratuko da hondakina kudeatzeaz, eta dagokion tratamendu-kontratua (TK) formalizatu beharko du, edo administrazio eskudunak edo hondakinak kudeatzeko plataforma aplikagarriak eskatutako onarpen-dokumentu baliokidea. Hondakina lekualdatzearekin lotutako identifikazio edo segimendu dokumentu guztiak onarpen kontratu edo dokumentu horren eta indarrean dagoen araudiaren arabera izapidetuko dira.

9. Enpresa esleipendunak, hondakina zabortegi baimendu batera eraman aurretik, bitarteko biltegiratze-zentro bat jarri ahal izango du eskuragarri, betiere indarrean dagoen araudiak baimendua. Kasu horretan, zentroaren deskribapena, ezaugarri zehatzak, baimenak,… aurkeztu beharko dira memoria teknikoan. Gainera, bitarteko biltegiratze-zentroa Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinen Ekoizpen eta Kudeaketa Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da.

10. Urte amaieran emandako zerbitzuaren datuen txostena aurkeztuko da, bertan gutxienez egindako zerbitzuen datuak, hondakin motak, kopuruak, kudeatze data, onarpen agirien laburpena bilduko dira.

11. Kontratua gauzatzen den bitartean, zerbitzuari eragiten dioten eta nahitaez bete beharreko, arau, lege, teknika edo baldintza administratibo aldaketak gertatzen direnean, enpresa esleipendunak aldaketa horietara egokitzeko neurriak ezarriko ditu. Horrek ez du, berez, kontratua aldatzeko edo konpentsazio ekonomikorako eskubiderik emango, aplikatzekoa den araudiak berariaz kontrakoa xedatzen badu edo, sektore publikoko kontratuei buruzko legeriaren arabera, kontratua aldatzea bidezkoa den kasuetan izan ezik. Enpresa esleipendunak kontratuaren exekuzioari eragiten dion edozein arau-aldaketa garrantzitsuren berri eman beharko dio kontratazio-organoari, hura betetzen dela bermatzeko beharrezko neurriak proposatu beharko ditu eta Urola Kostako Uda Elkartearen aldez aurreko baimena eman beharko du.

4. ZERBITZUAREN ANTOLAKETA ETA KONTROL-SISTEMAK

4.1. Bilketa-zerbitzuaren antolaketa

Enpresa lizitatzaileek zerbitzua antolatu behar dute, gutxienez alderdi hauek garatuz:

- Hondakina nola bildu eta garraiatuko den proposatutako baliabideekin. Erabiliko diren bilketa-instalazioen kalitatea eta ezaugarri teknikoak. Baliabideen ahalmena.
- Erabiliko diren ekipamenduen, instalazioen, baliabideen deskribapena, ezaugarri teknikoak, argazkiak, krokisak eta abar.
- Zer garbiketa-sistema erabiliko den.
- Zer sistema erabiliko den hondakina biltzeko eta garraiatzeko.
- Bilketa-zerbitzua eta esleitutako lanak egingo dituzten langileak.
- Zer sistema aurreikusi den bilketa-zerbitzua kontrolatzeko, hondakinak identifikatzeko eta gerta litezkeen gorabeherei erantzuteko.
- Zer jarduketa-plan aurreikusi den materialarekin gerta daitekeen istripuren bati aurre egiteko.
- Zer instalazio, makina eta erreserbako langile dituen kontratistak.
- Instalazioen mantentze eta kontserbazio lanen plana, prebentziozkoa eta zuzentzailea.
- Zerbitzua hobetzeko egoki iritzitako bestelako datuak.

Zerbitzua gauzatzeko baldintzei dagokienez, zerbitzua antolatzerakoan nahitaezko betekizun hauek hartu beharko dira kontuan:

- Lanaldian zehar lana antolatzeko plangintza barne hartzea, langileak egunean gehienez zortzi (8) orduz egon ahal izatea kontuan hartuta, zereginen banaketa, txandakatzeak, esposizio-denborak eta etenaldiak zehaztuz.
- Lanaldi osoan segurtasun eta osasun baldintza egokiak bermatzea, atsedenerako, hidrataziorako eta errekuperaziorako guneak prestatzea barne, bai eta norbera babesteko ekipamenduen erabileraren eta lan-baldintzen arteko bateragarritasun egokia bermatzea ere, estres termikoa edo nekea bezalako arriskuak saihestuz.
- Bitarteko materialak eta antolakuntzakoak aurreikusi eta ezartzea eguraldi txarraren aurrean babesteko (euria, haizea, eguzki-erradiazioa, muturreko tenperaturak), honako hauek barne: estaltzeko edo babesteko sistemak, ordutegien egokitzapena, edateko uraren hornidura eta, hala badagokio, segurtasun- eta osasun-arrazoiengatik lanak aldi baterako etetea barne hartzen duten jarduketa-protokoloak.

Neurri horiek ez betetzeak edo behar bezala ez justifikatzeak eskaintzatik kanpo uzteko arrazoia izan daiteke.

4.2. Kontrol-txostenak

Kontratistak fakturazioan aipatzen diren kopuru guztiak justifikatu beharko ditu, eta hilero aurkeztu beharko ditu amaitu berri den hilabetean zehar instalazio hartzailean egindako deskargei buruzko xehetasunak, deskarga bakoitzaren data, erabilitako ibilgailuaren matrikula eta garraiatutako hondakin-kantitatea (kg-tan) zehaztuz.

Informazio hori ahalik eta modu egokienean bidaltzeko, Udal Elkarteak formatu jakin batean entregatzea eska dezake, paperean edo euskarri informatikoan, eta esleipendunak formatu hori erabili beharko du nahitaez.

Datuetan hutsuneak edo akatsak daudela ikusiz gero, zuzentzeko eskatuko du Udal Elkarteak. Udal Elkarteak datuak ontzat eman arte, hileko lana ez da amaitutzat joko.

Zerbitzuaren jarraipena eraginkorragoa izateko beharrezkotzat jotzen bada, Urola Kostako Udal Elkarteak txostenean eskatutako informazioaren edukia eta/edo formatua aldatu ahal izango du, eta esleipendunak eskatutako informazioa eman beharko du.

Goian aipatutako txostenez gain, Urola Kostako Udal Elkarteak zerbitzuari buruz eskatzen dizkion txosten eta azterketa-lan guztiak egin beharko ditu esleipendunak, ezarritako epean.

Urola Kostako Udal Elkarteak eskatzen dizkion agiri guztiak erakutsi beharko ditu esleipendunak, eta, bereziki, honako hauek: gizarte-aseguruekin lotutakoak, lan-arriskuen prebentzioari eta lan-istripuei buruzkoak, aseguru-polizak eta ibilgailuen garraio-txartelak. Hots, Urola Kostako Udal Elkartearen erantzukizun subsidiarioa saihesteko helburua duten eginbide guztiak burutzen utzi behar dio.

5. LANGILEAK

Kontratistak zerbitzua emateko behar diren langileak izango ditu une oro, Baldintza Teknikoen Agiri honetan eta aurkeztutako eskaintzan deskribatutako jarraibide eta zehaztapenei jarraikiz.

Zerbitzuaren buru eta arduradun nagusi gisa, kontrataren alderdi guztietan erabakiak hartzeko behar adinako gaitasuna duen pertsona batek egon beharko du. Pertsona horrek zuzeneko harremana izango du Urola Kostako Udal Elkartearekin.

Langile guztiek behar bezala identifikatuta egon beharko dute, zerbitzuen segurtasuna bermatzeko, eta identifikazio-sistema eraginkorrena proposatu beharko dute.

Kontratistak behar diren giza baliabideak izan beharko ditu, une oro kontratuaren xede den zerbitzua behar bezala gauzatzen dela ziurtatzeko eta gerta litezkeen gorabeherei erantzuteko, hala nola gaixotasun edo istripuagatiko bajak, baimenak, lan sindikalak, oporrak eta behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuk, bai eta ustekabeko bajak eta absentismoa ere. Kontratistak lanuzte edo baja horiek berehala bete beharko ditu.

Aurrekoa kontuan hartuta, enpresa lizitatzaileek, beren proposamenetan, kontratatutako zerbitzuak eraginkortasunez egiteko behar diren langileak aurreikusteko proposamen bat aurkeztu beharko dute, bai eta langileak ordezkatzeko plan bat ere.

Kontratuak irauten duen bitartean esleipendunak eskaintzan adierazitako langileren bat ordezkatzeko premia izango balu, aldez aurretik Urola Kostako Udal Elkarteari jakinarazi eta honen oniritzia jaso beharko du. Ordezkapen edo aldaketek ez dute, inola ere, eraginik izango kontratatutako lanen kalitatean edo ezarritako epeetan. Era berean, Udal elkarteak eskumena izan dezake, edozein unetan, lantaldeko kideren bat ezeztatu eta beste ordezko bat eskatzeko. Horretarako, esleipendunari jakinaraziko zaizkio erabakiaren arrazoiak. Ondorioz, esleipendunak astebeteko epean ordezkatua eta kide berria izendatua izan beharko du, eragin guztietarako.

Kontratistak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu, bai eta kontratuari aplikagarri zaion gainerako araubidea ere. Urola Kostako Udal Elkarteak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Urola Kostako Udal Elkarteak ez du esleipendunaren langileekin harreman juridikorik, lan-harremanik edo bestelakorik izango, ez kontratuak irauten duen bitartean, ez kontratua amaitzen denean. Esleipendunaren kontura izango dira lehiaketa honen ondorioz sortzen diren betebehar, kalte-ordain eta erantzukizun guztiak.

6. BALIABIDE MATERIALAK

Enpresa esleipendunak zerbitzua behar bezala egiteko behar diren baliabide material guztiak jarriko ditu.

Zerbitzua gauzatzeko behar diren baliabide materialek une oro bermatuko dute zerbitzu horiek ematea, lan-plana garaiz gauzatzeko eta gerta daitezkeen ezustekoak konpontzeko behar besteko tartearekin. Erabili beharreko materiala legearen eta zerbitzuaren eskakizunetarako egokiena izango da.

Kontratuari atxikitutako baliabide material guztiak denbora-tarte batez jarriko dira Urola Kostako Udal Elkartearen zerbitzuan, hau da, zerbitzua ematen den unean bakarrik.

Enpresa lizitatzaileek, beren eskaintzetan, zerbitzuetan erabili beharreko materiala zehaztuko dute, eta argi eta garbi adieraziko dute zer den zerbitzuak behar bezala emateko beharrezko materiala, eta zer den erreserbako materiala, hau da, normalean zerbitzuan egon ez arren, matxuragatik edo noizbehinkako errefortzuagatik zerbitzu-materialak ordezteko erabiliko dena.

Zerbitzurako erabiliko den material guztia enpresa lizitatzaileek deskribatu beharko dute, eta behar adina datu emango dituzte, material horiek ahalik eta hobekien ezagutzeko.

7. MEMORIA TEKNIKOA

Enpresa lizitatzaileek **memoria tekniko** bat aurkeztu behar dute, lanak antolatzeko eta egiteko modua, eta bitarteko material eta pertsonalak xehetasun osoz agertzen dituena. Bertan, gutxienez, puntu hauek aipatu beharko dituzte:

7.1. Garbigunean hondakina bildu eta garraiatzeko zerbitzua

Honakoak zehaztuko dira gutxienez:

- **Lan metodología eta antolaketa:** Lan-prozeduraren deskribapen teknikoa, faseen antolaketa eta koordinazioa (bilketa, ontziratzea, garraioa), jardueren plangintza, biltzeko, garraiatzeko eta kudeatzaile baimenduari entregatzeko prozeduraren deskribapena. Gorabeherak organo kontratatzaileari jakinarazteko prozedura. Zehaztuko dira:
    - **Aldez aurreko prestaketa-lanak:** zerbitzua behar bezala ematen dela bermatzeko beharrezko materiala planifikatzeko, prestatzeko eta berrikusteko jarduerak, baimenak eta dokumentazioa. Aldez aurreko koordinazioa organo kontratatzailearekin. Bilketa lekuaren baldintzak.
    - **Martxan jartzea eta biltzea:** materiala prestatu, zerbitzuan jarri eta biltzeko lanak antolatzea, hondakinak identifikatzea, mantentze-lanak eta garbiketa-lanak egitea, zerbitzua ezarritako ordutegiaren barruan erabat operatibo egongo dela bermatuz eta zerbitzuaren prestazioari eragin gabe eta arrisku gehigarririk sortu gabe.

- **Hondakina kudeatzea eta garraiatzea:**
  - Materiala prestatzea, enbalatzea, seinaleztatzea
  - Garraioaren antolaketa, enpresa baimendua
  - Bitarteko biltegiratze-zentroa, beharrezkoa izanez gero. Baimenak, ezaugarriak, erregistroa, biltegiratzea, epeak...
  - Zabortegi baimendua
  - Garbigunetik hondakina garraiatzeko epea
- **Ingurumen kudeaketa eta trazabilitatea**: Hondakinen trazabilitate-sistema, dokumentazio, kontrol eta jarraipen-prozedurak,….

- **Baliabide teknikoak eta materialak:** ibilgailuak, edukiontzi eta enbalaje homologatuak, norbera babesteko ekipamendua eta bitarteko osagarriak, biltzeko lekuan egoteko beharrezko baliabideak. Gorabeherak bideratzeko eskuragarri dauden erreserbako materialak.
- **Giza baliabideak:** atxikitutako langileak, amiantoarekin lan egiteko kualifikazioa eta prestakuntza espezifikoa. Arduradun tekniko bat izendatuko da gainbegiratzeko, lantaldea definituko da. Gorabeherak konpontzeko prest dauden erreserbako langileak.
- **Segurtasuna eta araudia betetzea:** Arriskuak prebenitzeko neurriak eta amiantoaren eta hondakin arriskutsuen arloan aplikatzekoa den araudia betetzea. Amianto-zuntzen esposizioa minimizatzeko eta enpresa esleipenduneko langileak, udal elkarteko langileak/, erabiltzaileak eta ingurumen-inpaktuaren minimizaziorako neurriak azalduko dira.
- **Kontingentzia-plana**.
  - Jasotzean edo garraiatzean izandako gorabeherak
  - Ezusteko egoeren eta larrialdien kudeaketa-protokoloak
  - Isuriak, enbalaje-hausturak edo bestelako arrisku-egoerak.
  - Atzerapenak edo arazo operatiboak

- **Hobekuntzak.** Zerbitzua behar bezala gauzatzeko duten bideragarritasuna eta erabilgarritasuna balioesteko aukera ematen duen justifikazio tekniko zehaztuta jasoko da eta kontratuaren prezioaren barne egon behar dute.

7.2. Urgentziazko esku-hartzeetan hondakina bildu eta garraiatzeko zerbitzua

Honakoak zehaztuko dira:

- **Lan metodología eta antolaketa:** Lan-prozeduraren deskribapen teknikoa, faseen antolaketa eta koordinazioa (bilketa, ontziratzea, garraioa), jardueren plangintza, ezusteko egoeren eta larrialdien kudeaketa-protokoloak biltzeko, garraiatzeko eta kudeatzaile baimenduari entregatzeko prozeduraren deskribapena. Gorabeherak organo kontratatzaileari jakinarazteko prozedura.
  - **Aldez aurreko prestaketa-lanak:** zerbitzua behar bezala ematen dela bermatzeko beharrezko materiala planifikatzeko, prestatzeko eta berrikusteko jarduerak, baimenak eta dokumentazioa. Aldez aurreko koordinazioa organo kontratatzailearekin. Bilketa lekuaren baldintzak.
  - **Prestaketa eta biltzea:** erantzun epea, baliabideak prestatu eta biltzeko lanak antolatzea, hondakinak identifikatzea, mantentze-lanak eta garbiketa-lanak egitea, arrisku gehigarririk sortu gabe.
  - **Hondakina kudeatzea eta garraiatzea:**
    - Materiala prestatzea, enbalatzea, seinaleztatzea
    - Garraioaren antolaketa, enpresa/ibilgailu baimendua
    - Bitarteko biltegiratze-zentroa, beharrezkoa izanez gero. Baimenak, ezaugarriak, erregistroa, biltegiratzea, epeak...
    - Zabortegi baimendua

- **Ingurumen kudeaketa eta trazabilitatea**: Hondakinen trazabilitate-sistema, dokumentazio, kontrol eta jarraipen-prozedurak, ingurumen-inpaktuaren minimizaziorako neurriak azalduko dira.

- **Baliabide teknikoak eta materialak:** ibilgailuak, edukiontzi eta enbalaje homologatuak, norbera babesteko ekipamendua Gorabeherak bideratzeko eskuragarri dauden erreserbako materialak.
- **Giza baliabideak:** atxikitutako langileak, amiantoarekin lan egiteko kualifikazioa eta prestakuntza espezifikoa. Arduradun tekniko bat izendatuko da gainbegiratzeko, lantaldearen egonkortasuna. Gorabeherak konpontzeko prest dauden erreserbako langileak.
- **Segurtasuna eta araudia betetzea:** Arriskuak prebenitzeko neurriak eta amiantoaren eta hondakin arriskutsuen arloan aplikatzekoa den araudia betetzea. Amianto-zuntzen esposizioa minimizatzeko eta enpresa esleipenduneko langileak, udal elkarteko langileak, erabiltzaileak eta ingurunea babesteko neurriak.
- **Kontingentzia-plana**.
    - Jasotzean edo garraiatzean izandako gorabeherak
    - Ezusteko egoeren eta larrialdien kudeaketa-protokoloak
    - Isuriak, enbalaje-hausturak edo bestelako arrisku-egoerak.
    - Atzerapenak edo arazo operatiboak

- **Hobekuntzak.** Zerbitzua behar bezala gauzatzeko duten bideragarritasuna eta erabilgarritasuna balioesteko aukera ematen duen justifikazio tekniko zehaztuta jasotzen eta kontratuaren prezioaren barne egon behar dute.

1. ERANSKINA: LAN-PLANAREN GUTXIENEKO EDUKIA

1. LANAREN DESKRIBAPENA

1.1. Jarduera-mota

Lan-plan honen baitan sartzen diren egitekoen artean daude Zumaiako eta Aia/Orioko garbiguneetako instalazioetan dauden eta amiantoa izan dezaketen zuntz-zementuzko piezak biltzea eta suntsitzea, baimendutako kudeatzaile baten bitartez.

Enpresa esleipendunak betebehar hauek izango ditu:

- Horrelako lan bat behar bezala egiteko legediak eskatzen dituen beharrezko giza baliabideak eta bitarteko teknikoak izan behar ditu.
- Amiantoaren Arriskupeko Enpresen Erregistroan (RERA) izena emanda egongo da.
- Lan-prozedurak xehetasun osoz jasoko ditu planean, amianto-zuntzak ingurunean zabaltzea eta zeregin horretan aritzen diren langileek zuntz horiek arnastea eragotziko duen metodologia oinarri hartuta.
- Urola Kostako Udal Elkartera bidaliko du plana, Laneko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzara bidali aurretik. Hau da, Urola Kostako Udal Elkarteak onartu ondoren bidaliko da Laneko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzara, onartu dezan. Lan-plana egiten duen enpresak beharrezkoak diren zuzenketak egingo ditu, dagokion agintaritzak hala eskatuz gero.
- Onartutako lan-plana egoitza elektronikoaren bidez bidaliko du Urola Kostako Udal Elkartera, bai eta hori egiaztatzen duen agiria ere.

1.2. Amianto-mota

Lan-planean jasotako egitekoen artean, garbigunean bildu daitezkeen piezetako amianto ez hauskorrarekin lotutako esku-hartzea dago.

Bilduko diren zuntz-zementuzko piezetako amianto-mota krisolitoa edo amianto zuria da.

Metagailuen piezak jasotzeko aukera aztertu beharko da, hala nola asbestoa izan dezaketen harri erregogorrak.

1.3. Kokapena

Lan-planean zehaztuko diren lanak Gipuzkoako Urola Kostako Udal Elkartearen jabetzakoak diren Aia-Orioko eta Zumaiako garbiguneetan (*) zuntz-zementuzko piezak hartzearekin daude lotuta.

Jarduketa-protokolo bat ezarriko da zuntz-zementuzko piezetan amiantoa –betiere amianto ez hauskorra– duten materialak hartzeko eta biltzeko, aurrez programatutako datetan eta ordutegietan.

Horretarako, gune bat egokituko da garbigunean (15. puntuan zehaztu da), eta behar bezala mugatu eta balizatuko da; hain zuzen, bertara joan beharko dute materiala utzi nahi duten erabiltzaileek.

Gune horretan, deskontaminaziorako unitate bat egongo da, eta, horrez gain, baliabide material egokiak eta behar beste izango dira, hala nola big-bag poltsak, erabiltzaileek enpresa esleipenduneko langileei ematen dizkieten materialak uzteko; hain zuzen, langile horiek jasoko dituzte piezak, eta behar bezala egokituko dituzte big-bag poltsa horietan.

Gune horretatik gertu dauden etxoletan, korronte- eta ur-hartuneak egongo dira.

Enpresa esleipendunak telematikoki jakinarazi beharko dio Eusko Jaurlaritzaren Lurralde

Ordezkaritzari lan-planean jasotako lanak hasiko direla; jakinarazpen hori behar besteko aurrerapenaz egin beharko da, jarduketarekin hasi baino gutxienez hiru egun lehenago. Egoitza elektronikoaren bidez emango zaio jakinarazpenaren berri Urola Kostako Udal elkarteari.

(*) Kontratua indarrean den aldian, Urola Kostako Udal Elkarteak beste garbigune bat gehitu ahal izango du zerbitzura, beharrezkoa dela iritziz gero. Horretarako, enpresa esleipendunak garbigune horri dagokion lan-plan bat egin beharko du, eranskin honetan zehaztutako irizpideei jarraituz. Gehitze horrek ez du aparteko gasturik eragingo, baldin eta zerbitzuaren maiztasuna handitzen ez bada.

2. LANAREN HASIERA-DATA ETA AURREIKUSITAKO IRAUPENA

2.1. Hasiera-data

Hilean jarduketa-egun bateko maiztasuna ezarri da, bi garbiguneak txandakatuz. Jarduketa horretarako, hain zuzen, hileko bigarren osteguna zehaztu da. Desmuntatze-lanak egiten hasteko egutegiaren arabera, hondakinak biltzeko lehen jarduketa lan-plana onartu ondoren egingo da.

2.2. Lanen iraupena

Jarduketa-saio bakoitzak, lanerako ekipoen eta bitartekoen garbiguneko antolamendua barne, egun bat iraungo duela aurreikusten da.

Materiala jasotzeko, ordutegi hau aurreikusten da: 9:00-13:30 // 15:00-17:00.
Adierazitako ordutegi hori materiala jasotzeko zehaztu da. Enpresa esleipendunak aurrez aztertu beharko du zenbat denbora beharko duen zerbitzua emateko erabili behar dituen instalazioak eta materialak prestatzen eta jasotzen.

Ordutegi hori zerbitzuaren beharren arabera egokitu ahal izango da, Urola Kostako Udal Elkarteak beharrezko dela iritziz gero.

3. MATERIAL ISOLATZAILEAREKIN ZUZENEAN INPLIKATUTA EDO KONTAKTUAN DAUDEN LANGILEEN ZERRENDA

Lan-planari atxikitako langileek amiantoarekin lan egiteko prestakuntza eta esperientzia espezifikoa izango dute.

Enpresa esleipenduneko langileak soilik egongo dira amianto-zuntzen arriskuaren eraginpean, eta horiek soilik sartu ahal izango dira zuntz-zementuzko piezak manipulatzeko guneetan. Mediku-azterketak erantsiko dira, bai eta prestakuntzarekin lotutako ziurtagiriak ere: amiantoaren gaian jasotako prestakuntza, ikasgela iraunkorra eta eraikuntzako lanbide-txartela (bigarren zikloa).

Lanak hasiko direla jakinaraztean, zerbitzua emango duten langileak zehaztuko dira. Langileren bat lan-planean sartuta ez badago, jakinarazpen horri erantsiko zaio gehitu behar den langile horren dokumentazioa.

Eraginpean dauden langileek ez dituzte aparteko orduak egingo, eta ez dute pizgarrien sistema bati atxikita lan egingo.

4. LANA EGITEKO PROZEDURA

4.1. Langunearen seinaleztapena

Garbigunean, erabiltzaileek entregatzen dituzten zuntz-zementuzko piezak hartzeko eta biltzeko gune bat prestatuko da. 1. puntuan, piezak hartuko diren gunearen argazki bat erantsi da. Garbiguneko langileek gaiari buruzko informazioa emango diete kontsulta egiten duten edo aurrez egin izan duten erabiltzaileei. Era berean, zerbitzuak eragiten duen geografia-eremuan dauden udalei jakinaraziko zaie.
Lehenbizi, beharrezko instalazioak eta materialak ezarriko diren gunea balizatuko da; horiek zehaztasunez jasoko dira.
Gutxienez, seinale hauek jarriko dira (gaztelaniaz eta euskaraz):

“Amiantoa arnasteko arriskua”
“Ezin da erre”
“Ez sartu eremu honetan, lanak hala eskatzen ez badu”
“Derrigorrezkoa da NBEa erabiltzea (maskara…)”

Mugatutako gunean ezingo da sartu enpresa esleipendunarekin loturarik ez duen inor. Ohartarazpen-etiketaz seinaleztatuko dituzte, halaber, amiantoa edo amiantoa duten lehengaiak, hondakinak, obra-hondakinak eta beste material batzuk garraiatzeko eta biltegiratzeko erabiliko diren ontziak.

4.2. Aurre-lanak

Langileek norbera babesteko ekipamenduak jantziko dituzte, beharrezkoak diren guztiak. Horrez gain, erabiltzaileek piezak utziko dituzten eremu bat mugatuko dute.

Aldez aurretik, garbiguneko bulegoan, materialen bat utzi behar duten erabiltzaile guztiek nor diren adierazi beharko diete garbiguneko langileei, eta entrega hori baliabide informatikoen bidez erregistratuko da; erregistratu ondoren, materiala utziko dute, horretarako zehaztutako gunean. Enpresa esleipenduneko langileak arduratuko dira soilik erabiltzaileei pieza hartzeaz. Horretarako, hainbat tamainatako piezak biltzeko behar den materiala izango dute.

Lanean hasi aurretik, eta eguerdiko geldialdiaren ondoren, amiantoa kentzeko ekipo guztiek ongi funtzionatzen dutela egiaztatu beharko da.

4.3. Zuntz-zementuzko piezak kentzea

Zuntz-zementuzko pieza bat utzi nahi duten erabiltzaileek nor diren adierazi beharko diete garbiguneko langileei, eta sarrera-erregistroa egingo dute; hau da, erabiltzaileen datu pertsonalak hartuko dituzte, eta hondakinaren deskribapena, jatorria, kantitatea eta data jasoko dituzte.

Hondakina jasotzeko aurreikusitako ordutegia 9:00etatik 13:00etara da goizez, eta 15:00etik 17:00etara arratsaldez.

Erabiltzaile bakoitzari urtean behin hartuko zaio hondakina.

Hartuko duten materialak baldintza hauek bete behar ditu:

- Materiala ez hauskorra izango da, egoera onean egongo da eta ez du desmuntatu beharrik izango.
- Ibilgailu berezirik gabe garraiatu eta manipulatu daitekeen materialari dagokionez, hauek izango dira gehienezko kantitateak:
- Zuntz-zementuzko 2 plaka (4 m^2 eta 50 kg baino gutxiago.)
- 3 ml-ra arteko hoditeria-zati bat
- 200 kg-ra arteko elementu apaingarriak edo bereziak.

Hortik gorako kantitateak badira, erabiltzaileek baimen berezi bat eskatu beharko dute, eta Urola Kostako Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek onartu beharko dute.

Erabiltzaile partikularrek utzitako hondakinak soilik onartuko dira. Beraz, ez zaie hondakinik hartuko udal-hondakinak biltzen dituzten enpresei, industria orokorrari eta saltokiei (azalera handiei edo gremioei).

Sarrera erregistratu ondoren, garbigune barruan mugatutako gunera joango dira erabiltzaileak, eta, han, enpresa esleipenduneko langileei emango dizkiete piezak.

Dagokion paketatze-prozesua amaitu ondoren, hermetikoki itxiko da, amianto-zuntzak ez sakabanatzeko; gero, horrela garraiatuko da baimendutako zabortegira. Pakete guztiak ohartarazpen-etiketa honekin seinaleztatuta joango dira: KONTUZ! AMIANTODUN MATERIALAK.

Jardunaldiaren amaierarako, bildutako hondakina duten materialen erretiratzea programatuko da; kamioiaren garabi-besoaz zamatuko dira, baimendutako zabortegira garraitzeko.

Amaitzeko, lan egin den gune osoa xurgatuko da HEPA iragazkia eta hondakinak biltzeko poltsa bikoitza duen segurtasun-xurgatzaile baten bidez, aipatu hondakinak egokitu diren gunea guztiz saneatuta uzteko.

5. INGURUNEAN AMIANTO-ZUNTZAK SAKABANATZEA MUGATZEKO PREBENTZIO-NEURRIAK

Amianto-zuntzak ingurunean ez sakabanatzeko metodorik eraginkorrena deskribatu berri den lan-modua eta -prozedura betetzea da. Aurreko puntuan adierazitako metodologiaren arabera egingo da lan.

6. NORBERA BABESTEKO EKIPAMENDUAK

- **Buzoak.**

  Babes-baliabide hau jardunaldia amaitzean bota behar da, eta material kutsatutzat hartuko da. Material horren ezaugarriak eta jarraibideak erantsi dira.

- **Eskularruak.**

  Latex estaldurako eskularruak erabiliko dira, malguak eta helduleku irristagaitzekoak. Besoko muturra jantziarekin estaliko da.

- **Arnas maskara.**

  Erabilera bakarreko iragazkiak.
  P3 motakotzat homologatuak, eraginkortasun handikoak.
  Norbera babesteko maskarekin egunean 4 orduz egingo da lan; ezingo da gehiago erabili.

- **Segurtasun-botak**

  Langile guztiek segurtasun-bota irristagaitzak izango dituzte, punta indartuta dutenak.

7. LANGILEEN DESKONTAMINAZIOA

Aldagelak langunetik ahalik eta gertuen egongo dira, ahal dela. Deskontaminaziorako unitate mugigarri bat izango da, hiru ganberarekin: ganbera garbia, dutxadun ganbera eta ganbera zikina.

Langileek ezingo dituzte babes bereziko ekipamenduak kendu, ez eta gune horretatik atera ere ekipamendu horiek jantzita dituztela. Langunera sartu aurretik, langileek laneko ohiko arropa eta segurtasun-botak jantziko dituzte.

Eta balizatutako gunean sartu aurretik, erabili eta botatzeko buzoa jantziko dute laneko ohiko arroparen gainetik, baita babes-maskara eta eskularruak ere.

Lan-jardunaldian laneko buzoan tarratadaren bat gertatuz gero, zinta amerikarraz itxiko da txikia baldin bada, eta, aldiz, tarratada handia bada, buzo hori kendu eta buzo berri bat jantziko da; aldaketa hori deskontaminazio-unitatean egingo da.

Langunetik ateratzean, eta aldageletan sartu aurretik, elkarren artean garbituko dira, segurtasun-xurgagailua erabiliz. Langileak ganbera zikinean sartuko dira zuzenean, eta bertan kenduko dituzte buzoa eta eskularruak; gero, dutxaren ganberara pasatuko dira, eta dutxatu egingo dira, iragazkiak plastikozko karkasan dituzten maskarak jantzita. Guztiz busti ondoren, maskarak kendu ahal izango dituzte, eta uretatik pasatuko dituzte; gero, plastikozko poltsa batean sartuko dituzte, hurrengo egunean erabiltzeko. Iragazkiak aldatzen diren bakoitzean, erabilitako iragazkiak material kutsatutzat tratatuko dira; horregatik, zuntz-zementuzko gainerako hondakinen ondoan utziko dira.

Dutxa derrigorrezkoa da langile guztientzat. Aurrez deskribatu den bezala, giro-tenperatura dela-eta langileek buzoaren azpitik arropa badute, dutxatu aurretik kenduko dute gune horretan bertan, arropa horrek ez baitu inolako kontakturik izan amianto-zuntzekin lan-jardunaldian zehar; beraz, kendu ondoren, itxitura hermetikoko plastikozko poltsa batean sartuko da, hurrengo jardunaldia hasi arte.

Lan hori amaitzean, 396/2006 EDren 9. artikulua betez, zeregin horretan erabilitako arropa guztiak, aurrez deskribatu direnak, deskontaminazio-unitatean garbituko dira, eta gero, asbesto-zuntzen arriskua kendu ondoren, langileek beren etxera eramango dituzte, lehortzeko. Nolanahi ere, hautsarekin kontakturen bat izan duen laneko arropa bota egingo da, eta baimendutako zabortegira eramango da deuseztatzeko, amiantoz kutsatutako produktua den aldetik.

Dutxa maskara jantzita hartuko da, edo NBEa jantzita duen beste pertsona batek garbituko du horretarako prestatutako konketan. Behin maskara bustita dagoenean, itxitura hermetikoko plastikozko poltsa batean sartuko da; poltsa hori ganbera horretan utziko da. Dutxatu ondoren, modulu garbira pasatuko dira langileak, eta bertan jantziko dituzte kaleko arropak. Unitate hori pasabide baten bidez lotuko da langunearekin; pasabide hori zuntz-zementuzko piezak kentzeaz arduratzen diren langileek soilik erabili ahal izango dute.

8. DESKONTAMINAZIO-UNITATEKO SEGURTASUN-NEURRIAK

Deskontaminazio-unitatean, hondakin-uren AS iragazpen-makina bat egongo da (horren ezaugarriak lan-planean deskribatuko dira), langileentzako dutxan nahiz erabilitako tresnak eta elementuak garbitzeko egokitutako konketan erabilitako ura arazteko. Amianto-zuntzaz kutsatutako hondakin-urak hiru urratseko iragazkien unitate baten bidez araztuko dira, estolderia-sarera isuri aurretik. Aldian-aldian, martxoaren 31ko 396/2006 EDren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, urez garbituko da barrua, hormetan eta lurzoruan hautsa metatu ez dadin; konpartimentuko hustubidea urak iragazteko makinari lotuta egongo da, kanpora isuri aurretik arazteko.

Deskontaminazio-unitatearen konpartimentuek airea xurgatzeko eta iragazteko sistema depresore zentralizatu bat izango dute. Instalazio horren bidez, amiantoz kutsatutako barrutiko airea hiru urratseko iragazkien unitate batez iragaziko da; unitate horrek esekitako partikulen aurkako iragazki nagusi bat, aurreiragazki bat, eta hauts finak atxikitzeko tarteko iragazki bat ditu.

Ur-araztegiko iragazkiak eta depresorea aldian-aldian aldatuko dira, ekipamendu horien fabrikatzaileak ezarritakoaren arabera, eta baimendutako zabortegira garraiatuko dira, asbestoz kutsatutako produktu gisa.

9. MEDIKU-KONTROLA

Martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan, amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplika dakizkiekeen segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzekoaren, 16. artikulua betez, amiantoa duten produktuak desmuntatzen esku hartzen duten pertsona guztiei mediku-azterketa espezifiko bat egingo zaie lanak egiten hasi aurretik, eta aldian-aldian, horrelako lanak egiteko gai diren jakiteko. Prebentzio-zerbitzuarekin sinatutako hitzarmenari dagokion kontratuaren kopia erantsiko da.

Enpresa esleipendunak hauei buruzko datu-erregistroak eta dokumentazio-artxibo eguneratuak izango ditu:

- Lan-ingurunearen ebaluazioa eta kontrola.
- Langileen zaintza mediko-laborala.
- Eraginpean dauden langileen zerrenda, zeren eraginpean egon diren adierazita.

Mediku-azterketak urtero egingo dira. Era berean, langileren batek enpresan lan egiteari uzten badio, idatziz jakinaraziko zaio Osakidetzan mediku-azterketa bat egin behar duela; bertan adieraziko diote zer maiztasunekin jarraitu dezaketen beste mediku-azterketa espezifikoren bat egiten.

Ingurunearen ebaluazioari eta kontrolari buruzko datuak berrogei urtean gordeko dira artxibatuta, eta langileen zaintza mediko-laboralari buruzkoak, berrogeita hamar urtean; urte horietatik guztietatik, gutxienez, hogei lan-jarduera uzten den egunaz geroztik kontabilizatuko dira. Erregistro horiek ofizialki ezarritako ereduetan egingo dira.

10. ENPRESA ESLEIPENDUNAREKIN ZERIKUSIRIK EZ DUTEN PERTSONAK BABESTEKO NEURRIAK

Amiantoa kentzeko lanekin zerikusirik ez duten pertsonak babesteko neurria proiektu honetan deskribatutako lan-modua eta -prozedurak betetzea da, prozedura horiek mugatu egiten baitute zuntzen sakabanatzea eta, horrenbestez, pertsona horiek haien eraginpean egotea.

Langunera sartzea mugatu eta seinaleztatu egingo da, zer lan egiten ari diren azaltzen duten eta bertara sartzea debekatuta dagoela adierazten duten kartelak jarriz.

Beharragatik mugatutako gunean egon behar duten pertsona horiek (laginketa-teknikariek, lan-ikuskariek, etab.) enpresa esleipenduneko langileek erabiltzen dituzten babes-ekipamenduak erabili

beharko dituzte ezinbestean. Xede horretarako, hainbat pertsona hornitzeko beste elementu izango dira eskura.

11. LANGILEEI PRESTAKUNTZA ETA INFORMAZIOA EMATEA

Mediku-azterketa egin eta langileak gai direla ikusi ondoren, langile guztiek, lanean hasi aurretik, prestakuntza-saio bat jasoko dute enpresaren partetik, haren kanpoko prebentzio-zerbitzuaren eskutik, hain zuzen; prestakuntza-saioak (teorikoa eta praktikoa) gutxienez 6 ordu iraungo du, eta eduki hauek landuko dituzte gutxienez:

- Amiantoarekin lan egiteak osasunean izan ditzakeen arriskuak.
- 396/2006 ERREGE DEKRETUAN, martxoaren 31koan, amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplika dakizkiekeen segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzekoan, jasotako zehaztapenak.
- Horietan finkatutako gehienezko kontzentrazioak, eta ingurumena ebaluatzeko eta kontrolatzeko arauak.
- Langileek hartu beharreko higiene- eta prebentzio-neurriak, eta enpresak horretarako ezarri behar dituen bitartekoak eta zerbitzuak. Horrez gain, jakinaraziko zaie, lana egiten ari diren bitartean, ezin dutela ez jan ez erre.
- Erretzeko ohiturak dituen arrisku bereziki larriak, amianto-zuntzak arnastearekin duen eragin indartzailea eta sinergikoa dela-eta.
- Norbera babesteko baliabideak zergatik erabili behar diren eta zergatik diren nahitaezkoak, hala badira, eta nola erabili eta gorde behar diren baliabide horiek. Arriskuaren eraginpean egotearen ondorioak arintzeko beharrezko diren higiene- eta prebentzio-neurriei buruzko informazio oro.
- Horrez gain, enpresek gai hauei buruzko informazioa emango diete beren langileei eta horien ordezkariei:
    - Ingurumen-balorazioetan lortutako emaitzak, eta horien esanahia eta garrantzia.
    - Kontzentrazioetan ezarritako mugak gainditzen diren kasuak, horiek eragin dituzten arrazoi erabakigarriak eta egoera horiek zuzentzeko hartu diren neurriak.
    - Langileen jarraipen mediko-laboralaren emaitzak, ez-izendunak.
- Era berean, langile bakoitzari banan-banan jakinaraziko zaizkio bai bere lanpostuari dagozkion ingurumen-balorazioaren emaitzak bai bere mediku-azterketaren datuak; behar beste azalpen emango zaizkio, erraz uler dezan.
- Altueran lan egitean hartu beharreko oinarrizko segurtasun-neurriak.
- Lana utzi ondorengo informazioa: dagozkien mediku-azterketak egiten jarraitu beharko dute, beren etxetik hurbilen dagoen osasun-zentroan.

Jasotako prestakuntzarekin batera, gai hauei buruzko gutxieneko informazioa emango da:

- Lan-prozedura (Amiantoarekin lan egiteko plana)
- Norbera babesteko ekipamenduen erabilera egokia

Horrez gain, langile guztiek, eta horien lege-ordezkariek, Segurtasuna eta Higienea eta Laneko Arriskuen Prebentzioa gaietan parte-hartze aktiboa eta jarraitua izatea erraztu eta sustatuko du enpresa esleipendunak, aldizkako kontsulten, iradokizunen eta ekimenen sistema baten bidez.

Enpresa esleipendunak, lanean hasi aurretik, lan-planaren kopia bat emango dio langileen ordezkariari, langileek lanaren ezaugarrien berri izan dezaten, eta dagozkien lanak egitean zer segurtasun- eta prebentzio-neurri hartu behar dituzten jakin dezaten; horrez gain, jakinaraziko zaie babes-maskara jantzita egin beharreko lana egunean lau ordura mugatuko dela, horrelako lanekin lotuta indarrean den legedian zehazten den bezala. Kopia emate hori agiri bidez erregistratuko da, langileen ordezkariak sinatu ondoren.

Era berean, langileek eraikuntzako lanbide-txartelaren bigarren zikloko prestakuntza jasoko dute, aipatu diren lanak egiteko.

12. HONDAKINAK DEUSEZTATZEA.

Hondakinak araudi espezifikoa betez deuseztatuko dira, hau da, produktuari tratamendu egokia emango dion hondakin-kudeatzaile baten bitartez; hala, hondakina Ingurumen Sailak ofizialki baimendu eta homologatutako zabortegi batean utziko da.

Baimendutako enpresa kudeatzailea zein den adieraziko da, eta bere baimen-agiriak eta amiantoa duten zerbitzuko hondakinak onartzeko ziurtagiriak zehaztuko dira.

Hondakina enpresa homologatu batek garraiatuko du; hark eramango du dagokion zabortegira. Hondakin arriskutsuak garraiatzeko akreditazioa eta hondakina onartzeko ziurtagiri ofiziala Eusko Jaurlaritzaren IKS programaren bidez erantsiko dira.

Garraiatzeko, galga lodiko plastikoz estaliko dira paletak, eta, gero, zigilatu eta zumitzaz finkatuko dira; ondoren, produktuak etiketatutako dira, amiantoa dutela ohartarazteko nazioarteko anagrama duten eranskailuak edo zerrendak jarriz. BIG-BAG poltsak hau dioten ohartarazpen-etiketarekin seinaleztatuko dira: KONTUZ! AMIANTODUN MATERIALAK.

Enpresa esleipendunak hondakina aldi baterako biltzeko zentro bat badu dagokion garbigunetik jasotzen denetik azken kudeatzaileari ematen zaion arte, zentroa Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinen Ekoizpen eta Kudeaketa Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailak emana, eta Eusko Jaurlaritzako Laneko Lurralde Ordezkaritzak aldi baterako biltegiratzeko lan-plana onartzen duen ebazpena erantsi beharko ditu.

13. ENPRESAREN PREBENTZIO-BALIABIDEA

Enpresa esleipendunak prebentzio-baliabide izendatuko du enpresako pertsona bat, prestakuntza egokia duena eta horrelako zerbitzuen arduradun gisa aritzeko kategoria eta esperientzia dituena. Bere gaitasuna ziurtatzen duen agiria eta prebentzio-baliabide izendatzea onartzen den ziurtagiria erantsiko dira.

Lanak hastera doazela jakinaraztean, zerbitzuaren prebentzio-baliabidea nor izango den zehaztuko da, eta bere gaitasun-ziurtagiria erantsiko zaio jakinarazpenari.

14. LAN-INGURUNEAREN EBALUAZIOA ETA KONTROLA

Enpresa esleipendunak neurketa pertsonal bat egingo du urtero, MTA/MA-051 (“Mintz-iragazkiaren metodoa / kontraste-mikroskopia optikoa”) arauaren arabera. Azterketa hori horrelako azterketak egiteko akreditatuta dagoen laborategi batek egingo du.

Laginketa-aldian bildutako datuak erregistro-fitxa batean jasoko dira, amiantoarekin lanean aritzean harekiko esposizioa ebaluatzeko datuak erregistratzeko fitxan, hain zuzen (martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuaren IV. eranskina), eta lanak amaitzean, Laneko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzara bidaliko da.
Laginak hartzeko eta ingurumen-kontrolak egiteko, laginketa-ponpa bat erabiliko da, eta lanak egiten diren bitartean baliatuko da. Hartze-elementua langilearen gainean jarriko da, minutuko 3 litroko emariarekin; horrela, laginaren balioa haren esposizioaren adierazgarria izango da, lanpostuaren baldintzak eta eraginpean emandako denbora kontuan hartuta.

15. KOKAPENA

Irudia: Zumaiako garbigunearen sarrera



Irudia: Amiantoa kentzeko gunearen kokapena (Zumaiako garbigunea)



Irudia: Aia-Orioko garbigunearen sarrera



Irudia: Amiantoa kentzeko gunearen kokapena (Aia-Orioko garbigunea)





Irudia: Zarauzko garbigunearen sarrera (Oraindik ez dago irekita)



Irudia: Amiantoa kentzeko gunearen kokapena (Zarauzko garbigunea)

Zehazteko